

LEParen INGURUKO AZKEN BERRIAK

Abenduaren 21ean LEParen inguruan Lakuan izan genuen bileratik hurrengo informazioa ekarri dugu:

- LEPeko abisua prentsan eta WEB orrian bi egunetan publikatuko da: abenduaren 24an eta urtarrilaren 7an.
- EHAAn eskaintza eta deialdia (oinarriak) publikatu:
 - Eskaintza: urtarrilaren 3an
 - Deialdia (oinarriak): urtarrilaren 9an
- LEPera apuntatzeko epea:
 - **Urtarrilaren 10etik 29ra biak barne** (Interneten eta Lurraldetako Hezkuntza Ordezkaritzetan)
- **AZTERKETAK:** Test moduan izango dira
 - Hizkuntza Eskakizuna: martxoaren 17an
 - Lehenengoa: martxoaren 24an (110 galdera)
 - Bigarrena (behin behineko data): martxoaren 31n (5 kasu praktiko. Bakoitzeko 12 galdera)
- **MERITUAK:** Oinarriekin batera publikatuko dira
 - Egindako zerbitzuak: **gehienez 4,5 puntu:**
 - Publikoan hileko: 0,07 puntu
 - Pribatuan eta ikastoletan hileko: 0,035 puntu
 - Prestarakuntza- ikastaroak: **gehienez puntu 1:**
 - 20 eta 60 ordu artekoak: 0,30 puntu
 - 60 orduko eta luzeagoak: 0,50 puntu
 - Euskaraz jakitea: **gehienez 3 puntu**
 - Irakaskuntzako 2HE, EGA edo horren baliokidea: 3,00 puntu
 - Irakaskuntzako 1HE edo horren baliokidea: 2,00 puntu
 - Bestelako titulazioak **gehienez 0,50 puntu**

Lan eskaintza honen inguruan orokorrean luzatu dizkiguten beste hainbat datu:

- Goi mailako Teknikari tultulua betebeharra denez meritu bezala ez du puntuatuko bestelako titulazioen atalean.
- Oposaketetan parte hartzeak ez ditu ordezkapen zerrendak aldatuko, ezta ere zerrendetan sartzeko balioko.
- Administrazioak agindu zigun, eta beti ere posible izango balitz, lehenengo azterketatik bigarrenera 2 asteko tartea uztea. Horregatik, eta nahiz eta, azterketen datak behin behinekoak diren, lehenengoa martxoaren bukaeran izango dela argi ikusi zen.
- 2002ko oposaketetan eginiko azterketa mota izango da, baina argi utzi dute ez direla galdera motak errepikatuko.
- Gure bibliografian legedirik ez dugunez, abisatu digute galdera teorikoak eskola inklusibo, heziketa premia berezien araudia eta OMSaren testuaren inguruan izango direla.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Fermin Lasuen, 13-behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde Zumarkalea, 62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi, 1 behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martxelo Zelaieta, 75-2A 31001 Iruñea Telf.: 948 210 422 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic KARRIKA 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org

MAHAI NEGOZIATZAILEAREN BERRIAK

Atzo, 2006ko abenduaren 21a, Lakuan Hezkuntza Administrazioako ordezkariekin mahaia izan genuen sindikatuko ordezkariak.

Nahiz eta Administrazio aldetik gai orden bakarra zuten, hau da, oposaketak, BERRIRO ERE, gogorarazi genien aspalditik Lan Hitzarmenean negoziatu behar diren gutxiengoak, baina, Hezkuntza Administrazioaren erantzuna ostrukarena egitea izan da. Oraingoan ere, gure eskaerei muzin egin diete, are gehiago, Hezkuntza Administrazio Zuzendaritzak gure gutxiengoak ez dituela kontrolatzen onartzera iritsi zen, ondorioz:

ADI LANGILEOK

GABONEN BUELTAN IZANGO DIREN BERRIEI ETA MOBILIZAZIOEI!

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Fermin Lasuen, 13-behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde Zumarkalea, 62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi, 1 behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martxelo Zelaieta, 75-2A 31001 Iruñea Telf.: 948 210 422 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org